Harkaitzetan, *Armeria euscadiensis* espeziearen populazio handia dago, espezie endemikoa, eta "galzorian" gisa katalogatua. Gertu dagoen Urgull mendian bildutako aleak botanikariek erabili zituzten lehen aldiz deskribatzeko.

de Pasaia, el monte Ulia le da continuidad en su parte costera, que llega hasta la misma playa de la Zurriola.

El entorno que suman ambas áreas es especialmente interesante para la **migración de aves**, tanto para las terrestres, que sortean el borde occidental pirenaico, como para las marinas, que anidan y se alimentan en la zona.

La vegetación original que cubría estos montes correspondía a diferentes etapas de bosque de roble marrojo (*Quercus pyrenaica*), que tras repetidos incendios ha dado paso al matorral y a áreas abiertas de prados.

Argomales (*Ulex europaeus*) y brezales (*Erica vagans*) cubren gran parte del monte en su ladera hacia el mar. Los helechos siempre acompañan a estas formaciones vegetales ①.

Los **brezales** se extienden hasta el borde mismo del acantilado, donde aparecen comunidades vegetales adaptadas a las condiciones extremas de los roquedos salpicados por el mar. Las grietas más escondidas y frescas de los acantilados suelen alojar interesantes especies de helechos, plantas carnívoras y orquídeas.

En los roquedos existe una importante población de *Armeria euscadiensis*, especie endémica que se encuentra catalogada como "en Peligro de Extinción". Ejemplares recolectados en el vecino monte Urgull fueron utilizados por los botánicos para describirla por primera vez.



*Drosera rotundifolia* landare intsektujalea.

Planta insectívora *Drosera rotundifolia*.



# Txingudi-Bidasoa

## Txingudi-Bidasoa

Txingudi-Bidasoako gunea aldi berean KBEa eta HBBEa da. Bidasoa eta Jaizubia ibaien paduretako, uharteetako eta ertzetako gunek hartzen ditu bere barne.

Gipuzkoako HBBE bakarra da eta gune berezia da **hegaztien migrazio prozesuetan**. Pirinioetako mendebaldeko muturrean dagoenez gailur altuak saihesten ditu eta igarobide errazena da. Milaka hegaztik gurutzatzen dute bertatik horrela, “inbutu” efektua sortuz.

Bidasoa eta Jaizubia ibaien estuarioak dira historikoki **5 migratzaile handien** presentziari eutsi dioten bakarrak EAEn: izokina, itsas amuarraina, kolaka, lanproia eta aingira. Arrain-espezie horiek beren migrazioetan iraganbide eta egokitzeko eremu gisa erabiltzen dute estuarioa.

Gainera, Jaizubia ibai **arrain arantza** dagoela egiaztatu den Euskadiko ibai urrienetako bat da. Espezia “kaltebera” gisa katalogatu dago eta azken hamarkadetan atzeraldia handia izan du.

Bestalde, paduren ondoko zelaietan penintsulako isurialde kantauriarrean mantentzen den **apo lasterkariaren** populazio eskasenetako bat dago.

El área de Txingudi-Bidasoa es a la vez ZEC y ZEPA, e incluye las zonas de marisma, las islas y los márgenes de los ríos Bidasoa y Jaizubia.

Es la única ZEPA de Gipuzkoa, y representa un punto singular en los **procesos migratorios de las aves**. Al situarse en el extremo occidental de los Pirineos se evitan las altas cumbres y el paso es más sencillo, por lo que miles de aves cruzan este lugar provocando un efecto “embudo”.

Los estuarios de Txingudi y Jaizubia son los únicos de la CAPV que han mantenido históricamente la presencia de las **5 grandes migradoras**: el salmón, el reo, el sábalo, la lamprea y la anguila. Estas especies de peces utilizan el estuario como zona de tránsito y aclimatación en sus migraciones.

Además, el Jaizubia es uno de los escasísimos ríos de Euskadi donde se ha constatado la presencia de **pez espinoso**, especie catalogada como vulnerable y que cuyas poblaciones han sufrido una importante recesión en las últimas décadas.

Por su lado, los campos adyacentes a las marismas cuentan con la presencia de una de las escasísimas poblaciones de **sapo corredor** que se mantienen en la vertiente cantábrica de la península.



**Landare-komunitate naturalak** mureen eraginpean dauden eremuetara mugatzen dira ia erabat. Zentzu horretan, itsasotik hurbilen dauden eremuen eta mareetan eragin gutxien duten eremuen artean landarediaren zonazio argia bereizten da.

Padurako landaredia bokalearen ondoan hazten da, eta **ihiak, lezkek eta ezpata-belarrak**, berriaz, ur gazia eta geza nahasten den lekuetan. Itsasotik urrutien dauden eremuetan, **ibaieretako zuhaitzietik** ertzak kolonizatzen dituzte.



Ihiak ① (*Juncus maritimus*), lezkek ② (*Phragmites australis*) eta ezpata-belarrak ③ (*Typha latifolia*).

Juncos ① (*Juncus maritimus*), carrizos ② (*Phragmites australis*) y espadañas ③ (*Typha latifolia*).



Arrain hiruarantza / Pez espinoso  
(*Gasterosteus aculeatus*)

Las **comunidades vegetales naturales** se ven restringidas casi exclusivamente a los espacios bajo la influencia de las mareas. En este sentido, se distingue una clara zonación de la vegetación entre las áreas más cercanas al mar y las que están menos influenciadas por las mareas.

La vegetación de marisma crece junto a la desembocadura, mientras **juncos, carrizos y espadañas** se desarrollan allí donde el agua salada y dulce se mezclan. En las zonas más alejadas del mar **bosquetes de ribera** colonizan los márgenes.



Apo lasterkaria / Sapo corredor  
(*Epidalea calamita*)





# Duna-sistemak

## Sistemas dunares

Gure lurraldearen izaera geologikoak aukera gutxi ematen ditu duna-eremuak garatzeko eta finkatzeko. Gainera, hiriguneak eta aisialdirako guneak kokatzerako orduan, gizakiak zona horiek nahiago izan ditu, eta ekosistema mota horren ia edozein aztarna desagerrarazi du. Horrek guztiak duna-sistemak Euskadiko kostaldeko **habitat ahulenetako bat** bihurtzen ditu.

Duna-sistemei lotutako landaredia oso espezi-fikoa da, eta hareazko lurzoruen gaineko baldintza gogorretara egokituta dago. Era berean, landare-espezieen banaketa itsasorako distantziarekin, haizearen eta kresalaren eraginarekin, eta lurzorua mugikortasunarekin eta ehundurarekin lotuta dago.

Duna-sistemetan **ondo bereizitako bi eremu** bereiz ditzakegu:

### 1. Duna mugikorrek

Itsasotik hurbilen dagoen eremu hareatsua hartzen dute, haizeak, itsasoko espraiak eta, batzuetan, baita marea biziek ere, zuzenean eragiten diotena. Oso lur ezegonkorak eta erraz higa daitezkeenak dira, non ia ez dagoen landareak finkatu ahal izateko lurzorurik.

La naturaleza geológica de nuestro territorio permite pocos lugares para el asentamiento de playas con zonas de dunas. Además, la preferencia del ser humano por estas zonas a la hora de asentar núcleos urbanos y áreas de esparcimiento, ha terminado por eliminar prácticamente cualquier vestigio de este tipo de ecosistema. Todo ello convierte a los sistemas dunares en **uno de los hábitats más frágiles** de la costa de Euskadi.

La vegetación ligada a los sistemas de dunas es muy específica y se encuentra adaptada a las duras condiciones que se dan sobre los suelos de arena. De igual modo, la distribución de las especies de plantas está relacionada con la distancia al mar, la influencia del viento y el salitre, y la movilidad y la textura del suelo.

Podemos distinguir **dos zonas bien diferenciadas** en los sistemas de dunas:

### 1. Dunas móviles

Comprenden la zona arenosa más cercana al mar que se ve afectada directamente por el viento, por el spray marino y, en ocasiones, incluso por las mareas vivas. Son terrenos muy inestables y fácilmente erosionables, donde apenas existe suelo en el que las plantas puedan asentarse.

## 2. Duna finkoak

Hareatzak ondo garatuta daudenean duna fin-koak agertzen dira. Landaretza trinkoagoa da eta soropila bezala hasten da lurra estaltzen. Landare belarkarak eta lehen zuhaixkak ager-zen dira.

## 2. Dunas Fijas

Cuando los arenales están bien desarrollados aparecen las dunas fijas. La vegetación es más densa y comienza a cubrir el terreno como lo haría el césped. Plantas herbáceas y los prime-ros arbustos comienzan a aparecer.

### DUNA-SISTEMAKO ESPEZIE BEREIZGARRIAK ESPECIES CARACTERÍSTICAS DEL SISTEMA DUNAR

Dunetako espezie gehienek loraldia maiatzetik uztaileara doa.

La floración de la mayoría de especies dunares va desde mayo hasta julio.



*Ammophila arenaria*  
**Harenondokoa**  
Barrón

Duna mugikorretara hobekien egokitutako landarea da. Es la planta mejor adaptada a las dunas móviles.



*Eryngium maritimum*  
**Itsas armika**  
Cardo marítimo

Hosto arantzatsuak ditu eta bere loreek tonu urdinxka dute. Tiene hojas espinosas y sus flores tienen un tono azulado.



*Crithmum maritimum*  
**Itsas mihilua**  
Hinojo marino

Duna eta labarretan ohikoa. Bere hostoa jangarria da. Habitual en dunas y acantilados. Su hoja es comestible.



*Lagurus ovatus*  
**Untxi buztana**  
Lágrimas de la Virgen

Sarritan sorta lehor apaingarriak egiteko biltzen da. Suele utilizarse para hacer ramos secos ornamentales.



*Euphorbia paralias*  
**Dunetako esne-belarra**  
Lechetezina de las dunas

Hostoak haragitsuak ditu eta fruitua adarren puntetan agertzen da. Sus hojas son carnosas y el fruto aparece en las puntas de las ramas.



*Calystegia soldanella*  
**Itsas ezker-ahiena**  
Campanilla de playa

Kanpana itxurako lore deigarriak dituen landare herreskaria. Planta rastrea de flores llamativas con forma de campana.



*Cakile maritima*  
**Itsas kakilea**  
Oruga de mar

Loreak lau petalo ditu, zuri-lila kolorekoak. Su flor tiene cuatro pétalos de color blanco-lila.



*Pancratium maritimum*  
**Itsas lilipa**  
Lirio de mar

Loreak handiak, deigarriak eta usaintsuak dituen landare liraina. Planta esbelta de flores grandes, llamativas y aromáticas.



## Padurak eta estuarioak

### Marismas y estuarios

Padurak eta estuarioak **lurraren eta itsasoaren arteko fusioa** dira, non landaretza ur gaziaren eta ur gezaren nahasketarekin oso lotuta dagoen.

Itsasaldiek, era berean, paduran eta estuarioan dagoen landaredi mota baldintzatzen dute. Ibaian gora egin ahala, itsasoaren eragina murriztu egiten da, eta landare-komunitateak txandakatzen dira.

**Biodibertsitate-puntu berotzat** hartzen diren eremuak dira, landareen eta animalien dibertsitate handia dela eta; kontaezinak diren habitaten mosaikoa da. **Milaka hegaztiren atsedenerako eta elikadurarako** funtsezko puntuak dira. Era berean, molusku eta krustazeoen aberastasuna azpimarratu behar da (karramarroak, lapak, barraskiloak...), milaka hegaztientzako elikagai baitira.

**Lur emankorrak** eta orografia laua direla eta, gizakiaren interes ekonomiko eta produktiboa handia izan da eremu horietan. Nekazaritzarekin, eraikuntzarekin eta industriarekin lotutako jarduerak ezin konta ahala aldiz okupatu eta eraldatu dituzte padurak eta estuarioak.

Las marismas y estuarios constituyen la **fusión de la tierra con el mar**, donde la vegetación tiene una estrecha relación con la mezcla del agua salada y la dulce.

La marea condiciona de igual manera el tipo de vegetación presente en la marisma o estuario. Según ascendemos por el río la influencia del mar disminuye, y las comunidades vegetales se dan el relevo unas a otras.

Son áreas consideradas como **puntos calientes de biodiversidad**, debido a la gran diversidad de plantas y animales presentes, lo que da como resultado un mosaico de innumerables hábitats. Son puntos clave para el **reposo y alimentación de miles de aves**. También cabe destacar la riqueza en moluscos y crustáceos (cangrejos, lapas, caracolillos...), que sirven como alimento para miles de aves.

Debido a sus **fértiles suelos** y llana orografía, el interés económico y productivo por parte del ser humano en estas zonas ha sido alto. Actividades relacionadas con la agricultura, la construcción y la industria han ocupado y transformado incontables veces las marismas y estuarios.



## PADURETAKO ETA ESTUARIOETAKO ESPEZIE BEREIZGARRIAK

### ESPECIES CARACTERÍSTICAS DE MARISMAS Y ESTUARIOS



*Zostera noltii*  
**Arbazta**  
Broza

Itsas uretan murgilduta bizi da etengabe.

Vive permanentemente sumergida en aguas marinas.



*Spartina maritima*  
**Belar gazia**  
Borrazia

Hosto zorrotzdun landarea. Izugarri halofiloa da.

Planta con hojas envainadoras. Es extremadamente halófila.



*Salicornia dolichostachya*  
**Sosa zuria**  
Sosa blanca

Irailetik azarora loratzen da. Oso halofiloa da.

Florece de septiembre a noviembre. Es muy halófila.



*Juncus maritimus*  
**Itsas ihia**

Junco marítimo

Askotan erabiltzen da hezeguneetako lehengoratzeko lanetan.

Se usa en restauraciones ambientales de zonas húmedas.



*Phragmites australis*  
**Lezka**  
Carrizo

Formazio handietan agertzen da lezkadiak osatuz.

Aparece en grandes formaciones, creando carrizales.



1

① *Ardea cinerea*  
**Lertxun hauskara**  
Garza real

② *Egretta garzetta*  
**Lertxuntxo txikia**  
Garceta común

Hegazti zangaluzekak.

Gure lurraldean bizi diren espezieak dira, baina banakako askok migrazio-joan-etorriak egiten dituzte.

Aves zancudas. Son especies residentes en nuestro territorio, aunque numerosos ejemplares emprenden desplazamientos migratorios.



2



*Fulica atra*  
**Kopetazuria**  
Focha común

Ur lasaiak eta landaretza zingiratsu eta urperatu ugari dituzten tokiak ditu gustoko. Le gustan las aguas tranquilas y con abundante vegetación palustre y sumergida.



3

③ *Charadrius dubius*  
**Txirritxo txikia**  
Chorlito chico



4

④ *Calidris alba*  
**Txirri zuria**  
Correlimos tridáctilo



5

⑤ *Limosa limosa*  
**Kuliska buztanbeltza**  
Aguja colinegra

Hegazti limikolak ugari dira paduretako lohi- eta hareak-eremuetan. Antzeko morfologia dute, baina alde handiak daude mokoekin.

Las aves limícolas abundan en áreas de limo y arena de las marismas. Presentan una morfología similar, si bien hay grandes diferencias en sus picos.



# Kostako txilardiak

## Brezales costeros

**Itsaslabarretan** eta **itsasoaren eraginpean dauden eremuetan**, landareak garatzeko baldintzak oso txarrak dira. Olatuen zipriztin zuzenek edo brisak arrastatutako gatz-ekarpen etengabeek bat egiten dute lurzorua hauskortasunarekin eta eremu horietako haize indartsuekin. Horregatik, landaredia bizirauteko egokitu behar izan da.

**Txilardi eta otadiak** itsaslabarretan goialdean agertzen hasten dira, non lurra sakonxeago den eta materia organiko gehiago metatzen

En los **acantilados** y en las **zonas expuestas al mar**, las condiciones para el desarrollo de las plantas son muy adversas. Los continuos aportes de sal por las salpicaduras directas de las olas o arrastrada por la brisa, se unen a la fragilidad del suelo y a los fuertes vientos de este tipo de zonas. Por ello, la vegetación se ha adaptado para sobrevivir.

Los **brezales y argomales** comienzan a aparecer en la zona alta del acantilado, donde el suelo es algo más profundo y acumula más materia orgánica. Aquí, las **formaciones arbustivas** son de pequeña talla y de aspecto almohadillado.

Debido a su capacidad de dar refugio, en este ecosistema abundan las **aves paseriformes**.

También habitan las áreas más rocosas importantes poblaciones de **reptiles**, que buscan la exposición al sol al mismo tiempo que la protección



Buztangorri iluna / Colirrojo tizón  
(*Phoenicurus ochruros*)



Pitxartxar burubeltza / Tarabilla europea  
(*Saxicola torquatus*)

duen. Hemen, **zuhaxka-sastraka formazioak** altuera txikikoak eta kuxin itxurakoak dira.

Babesa emateko duen gaitasuna dela eta, ekosistema horietan **hegazti paseriformeak** ugariak dira.

Eremu harritsuenetan narrasti-populazio garrantzitsuak bizi dira, zeinek eguzkiarekiko esposizioa eta landaretza trinkoaren babesa bilatzen duten. Nabarmentzekoak dira musker berdexka (*Lacerta schreiberi*), eskinko hiruhatza (*Chalcides striatus*) edo suge berde-horia (*Hierophis viridiflavus*).

de la densa vegetación. Destacan el lagarto verdinegro (*Lacerta schreiberi*), el eslizón tri-dáctilo (*Chalcides striatus*) o la culebra verdiamarilla (*Hierophis viridiflavus*).



Suge berde-horia /  
Culebra verdiamarilla  
(*Hierophis viridiflavus*).

## KOSTAKO TXILARDIETAKO ESPEZIE BEREIZGARRIAK

### ESPECIES CARACTERÍSTICAS DE LOS BREZALES COSTEROS



*Erica vagans*  
**Txilarr burusoila**  
Brezo

Euskadiko txilarrrik ohikoena da. Ekainetik irailera loratzen da. Es el brezo más común de Euskadi. Florece de junio a septiembre.



*Ulex europaeus*  
**Ote zuria**  
Argoma

Lekadun landarea. Lore horiak arantzen gainean hazten dira. Planta leguminosa. Las flores amarillas crecen sobre sus espinas.



*Calluna vulgaris*  
**Ainar arrunta**  
Brecina

Txilarraren antzekoa. Adarrak, hostoak eta loreak txikiagoak ditu. Parecida al brezo. Tiene las ramas, hojas y flores más pequeñas.



*Genista hispanica*  
**Otabera arrunta**  
Genista

Bere loreak adarren muturretan biltzen dira lore-mordoak osatuz. Sus flores se reúnen formando racimos en los extremos de las ramas.



*Asplenium marinum*  
**Itsas iratzea**  
Helecho marino

Hezetasuna etengabea den labarretako arrakaletan hazten da. Crece en las grietas de los acantilados donde la humedad es constante.



*Daucus carota ssp. gummifera*  
**Mandaperrexila**  
Zanahoria de acantilado

Baso-azenarioaren azpiespezia. Subespecie de la zanahoria silvestre.



*Pteridium aquilinum*  
**Iratzea**  
Helecho común

Mundu osoko landare-organismo hedatuenetako bat. Uno de los organismos vegetales de más amplia distribución en el mundo.



*Plantago maritima*  
**Itsas plantaina**  
Llantén marino

Lore-egitura oso bereizgarriak dituen belar-landare iraunkorra. Planta herbácea perenne con inflorescencias muy distintas.





# Artadi kantauriarra

## Encinar cantábrico



Karnaba / Jilguero  
(*Carduelis carduelis*)

Ekosistema berezi hau kantauriar isurialdean zehar **isolatutako eremuetan** mantentzen da, klima epelagoa eta lehorragoa zen eta artadiak eskualdea estaltzen zuen garaietako lekukoa da. Gaur egun, kostaldeko artadiak **kareharrizko azaleratzeetan** biltzen dira, non lurzorua urria den eta ez den urari eusteko gai.

Itsasertzean dauden arteak azpiespezie desberdin gisa sailkatu dira: *Quercus ilex* subsp. *ilex*. **Baso trinko eta ilunak** osatzen dituzte, altuera baxukoak eta zuhaitz dentsitate handikoak. Trinkotasun horrek **hegazti eta ugaztun espezie ugari** babesten ditu.

Zuhaitzek eta zuhaixkek osatzen dute basoa. **Hostoak iraunkorrak eta koriazeoak** (gogorak) dituzte, transpirazioa saihesteko



Trikua / Erizo  
(*Erinaceus europaeus*)

Este peculiar ecosistema mantiene **reductos aislados** a lo largo de la cornisa Cantábrica, testigos de épocas remotas en las que el clima era más cálido y seco y el encinar cubría la región. Hoy en día los encinares costeros se concentran en los **afloramientos calizos**, donde el suelo es escaso e incapaz de retener el agua.

Las encinas presentes en el litoral han sido clasificadas como una subespecie diferente: *Quercus ilex* subsp. *ilex*. Forman **bosques espesos y oscuros**, de no mucha altura y con abundante densidad de árboles. La inaccesibilidad del encinar procura protección a **numerosas especies de aves y mamíferos**.

El bosque está integrado por árboles y arbustos de **hojas perennes y coriáceas** (duras), diseñadas para evitar la transpiración. Así mismo, disponen de potentes raíces

diseinatuak. Era berean, arroken zirrikituetan finkatzeko gai diren sustrai indartsuak dituzte.

Artadi kantauriarrek garrantzi ekologiko handia du, harkaitz idorrek kolonizatzen eta egonkortzeko eta habitat horren berezitasunetara bereziki egokitutako fauna eta flora hartzeko duen ahalmen eskusiboagatik.



Basurdea / Jabalí (*Sus scrofa*)

ces capaces de fijarse a las ranuras de las rocas.

El encinar cantábrico posee una gran importancia ecológica, dada su exclusiva capacidad para colonizar y establecer roquedos inhóspitos y albergar una fauna y flora especialmente adaptada a las peculiaridades de dicho hábitat.



Hontz-zuria / Lechuza (*Tyto alba*)

## ARTADI KANTURIARREKO ESPEZIE BEREIZGARRIAK ESPECIES CARACTERÍSTICAS DEL ENCINAR CANTÁBRICO



*Quercus ilex*

**Artea**

Encina

Hosto iraunkorra eta egur oso preziatua duen zuhaitza.

Árbol perenne de madera muy preciada.



*Smilax aspera*

**Endalarra**

Zarzaparrilla

Arantza txikiak dituen landare igokaria, bere fruitua baia bat da.

Planta trepadora provista de pequeñas espinas, cuyo fruto es una baya.



*Laurus nobilis*

**Ereinotza**

Laurel

Hosto iraunkorra eta usaintsua duen zuhaitza.

Árbol de hoja perenne y aromática.



*Hedera helix*

**Huntza**

Hiedra

Irailetik azarora loratzen den landare igokaria.

Landare toxikoa da.

Planta trepadora. Es una planta tóxica.



*Arbutus unedo*

**Gurbitza**

Madroño

Jan daitekeen fruitu gorrixka ematen duen zuhaitza.

Oso erabilia lorezaintzan. Árbol de fruto rojo comestible. Muy utilizado en jardinería.



*Ruscus aculeatus*

**Erratza**

Rusco

Fruitua baia gorri bat da. Hostoak diruditenak, adar eraldatuak dira.

Su fruto es una baya roja. Lo que parecen hojas, son ramas transformadas.



*Ilex aquifolium*

**Gorostia**

Acebo

Hosto gogor eta arantzatsuak dituen zuhaitz txikia.

Pequeño árbol de hojas duras y espinosas.



*Prunus spinosa*

**Elorri beltza**

Endrino

Adar ugari, txandakatuak eta arantzatsuak dituen zuhaixka.

Planta arbustiva de ramas abundantes, alternas y espinosas.



## Marearteko arrokak

### Rocas de la zona intermareal

**Marearteko eremua** itsasgoran urak estaltzen duen eremua da, eta itsasbeheran agerian geratzen dena.

Puntu jakin batek urpean edo uretatik kanpo igarotzen duen batez besteko denbora funtsezkoa da ekosistema honen berezko espezieak finkatzeko. Horrela, eremu harritsu batean edo marearteko-zabalgunean **lau estai** (pisu) nagusi defini daitezke:

- **SUPRALitoral**: itsasgoren gainetik dagoen eremua, inoiz estaltzen ez dena, baina aparrek zipritzintzen duena.
- **ERDlitoral**: urperatze- eta emersio-alternantzia dago. Alga arreak ditu ezaugarritzat.
- **INFRALitoral**: batzuetan azaleratzen da, baina denbora gutxiz.
- **SUBLitoral**: inoiz ez edo oso gutxitan azaleratzen den eremua.

Normalean, antolaketa hori progresiboa izaten da eta ez oso argia, asko aldatzen baita inguru-nearen arabera. Ez da gauza bera malda txikiko hondartza batean egotea edo amildegi baten azpiko harkaitz malkartsuko gune batean.

La **zona intermareal** es aquella área que queda cubierta por el agua durante las mareas altas y al descubierto durante las mareas bajas.

El tiempo medio que pasa un punto concreto bajo el agua o fuera de ella es clave para el asentamiento de las diferentes especies propias de este ecosistema. De este modo, en un área rocosa o en la rasa mareal pueden ser definidos **cuatro pisos principales**:

- **SUPRALitoral**: área situada por encima de las pleamares que nunca se cubre pero sí es salpicada por la espuma.
- **MEDIOLitoral**: hay alternancia de inmersión y emersión. Se caracteriza por la presencia de algas pardas.
- **INFRALitoral**: emerge en ocasiones, pero durante poco tiempo.
- **SUBLitoral**: zona que nunca o en contadas ocasiones emerge.

Normalmente, esta estructuración es progresiva y no muy clara, ya que varía mucho dependiendo del entorno. No es lo mismo estar en una playa de escasa pendiente, o en una zona de rocas escarpadas bajo un acantilado.



## MAREARTEKO ARROKETAKO ESPEZIE BEREIZGARRIAK

### ESPECIES CARACTERÍSTICAS DE LAS ROCAS DE LA ZONA INTERMAREAL



#### LIKENAK / LÍQUENES

Onddo eta alga baten arteko sinbiosiaren bidez sortzen dira. Hezetasun handia behar dute bizirauteko, baina ez ur azpian egotea. Surgen de la simbiosis entre un hongo y un alga. Necesitan mucha humedad para sobrevivir, pero no estar bajo el agua.



*Ulva*



*Codium*



*Gelidium*

#### ALGAK / ALGAS

Algak hiru taldetan sailkatzen dira: berde, arre eta gorriak. Guztiek egiten dute fotosintesia, eta berezko pigmentuek ematen diete kolorea. Las algas se clasifican en tres grupos: verdes, pardas y rojas. Todas ellas realizan la fotosíntesis, y los pigmentos propios son lo que les dan color.



*Cragon crangon*



*Pachygrapsus marmoratus*



*Balanus sp.*

#### KRUSTAZEOKA / CRUSTÁCEOS

Karramarroak eta izkirak ohikoak dira itsasbeherak uzten dituen putzuetan edo harkaitzen zirrikituen artean. Itsas ezkurak eta lanpernak harkaitzetan itsastan dira. Cangrejos y quisquillas son habituales en los pozos que deja la bajamar o entre las ranuras de las rocas. Bellotas de mar y percebes se pegan a las rocas.



*Patella sp.*



*Nucella lapillus*



#### MOLUSKUAK / MOLUSCOS

Oskol bakarreko gasteropodoak (barraskiloak eta lapak) eta bi maskorreko bibalbioak (muskuiluak eta ostrak). Arrokei itsatsitako moluskuak aurkituko ditugu itsasbeherak uzten dituen putzuetan. Gasterópodos de un solo caparazón (caracolillos y lapas), y bivalvos de dos conchas (mejillones y ostras). Los veremos pegados a las rocas y en los pozos que deja la bajamar.

Zefalopodoak dira, besteak beste, olagarroa (*Octopus vulgaris*) edo txipiroiak (*Loligo vulgaris*). Son cefalópodos, entre otros, el pulpo (*Octopus vulgaris*) o los chipirones (*Loligo vulgaris*).



*Marthasterias glacialis*

#### EKINODERMOAK / EQUINODERMOS

Itsas trikuak eta itsas izarak dira ohikoak. Los erizos y estrellas de mar son los más comunes.



*Actinia equina*

#### ANEMONAK / ANÉMONAS

Urpean, beren garroak ateraten dituzte janaria harrapatzeko. Bajo el agua, sacan sus tentáculos para atrapar alimento.



*Chlidonias niger*  
Itsas enara beltza  
Fumarel común

Galtzeko arriskuan - En peligro de extinción

Gure lurraldean migrazio garaian ikus dezakegu, batez ere udazkenekoan. Barnealdean zein kostaldean ikus daiteke.

En nuestro territorio aparece durante la migración, sobre todo en el paso otoñal, observándose tanto en la costa como en el interior.

## Babestutako espezieak

### Especies protegidas

Jarraian, Euskadiko kostaldeko ekosistemetako landare- eta animalia-espezie babestu adierazgarrietako batzuk aurkezten dira. Horiek guztiak **Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan** jasota daude, hainbat babes-figurarekin.

A continuación, se presentan algunas de las especies protegidas de plantas y animales más representativas de los ecosistemas costeros de Euskadi. Todas ellas se encuentran recogidas en el **Catálogo Vasco de Especies Amenazadas** bajo diferentes figuras de protección.

#### LANDAREAK / PLANTAS



*Armeria euscadiensis*

Kaltebera - Vulnerable

Euskal kostaldeko endemismoa. Hogei bat populazio desberdin daude pH azidoko substratuak dituzten itsaslabarrei lotuta.

Urgull mendian bildutako aleak erabili zituzten botanikeriek espeziea lehen aldiz deskribatzeko.

Endemismo de la costa vasca. Existe una veintena de poblaciones diferenciadas ligadas a acantilados con sustratos de pH ácido.

Ejemplares recolectados en el monte Urgull fueron utilizados por los botánicos para describir la especie por primera vez.



*Medicago marina*

Galtzeko arriskuan - En peligro de extinción

Euskal populazio garrantzitsuena Iñurritzan dago. Mediterraneo eta Atlantikoko kostaldeetako duna finko eta mugikorretan bizi da.

La población vasca más importante se localiza en Iñurritza. Habita en dunas fijas y móviles de las costas mediterráneas y atlánticas.



*Mustela lutreola*  
**Bisoi europarra**  
Visión europeo

**Galtzeko arriskuan - En peligro de extinción**

Ibaiaren ingurura egokিতuta, uraren kalitate onaren adierazle da. Desagertzearen arrazoiak bisoi amerikarra eta bere habitataren galera eta degradazioa dira.

Adaptado al entorno fluvial, es un indicador de la buena calidad del agua. Las causas de su desaparición son el visón americano y la pérdida y degradación de su hábitat.



*Gasterosteus aculeatus*  
**Arrain hiruarantza**  
Pez espinoso

**Kaltebera - Vulnerable**

Arrain txikia da, eta bizkarraldean eta isatsean hainbat arantza ditu. Ur gezatan edo ur gazi-gezatan bizi da, ibai batzuen bokaletan.

Pequeño pez que se caracteriza por tener varias espinas ubicadas en la parte dorsal y en la cola.

Habita en aguas dulces o ligeramente salobres en las desembocaduras de algunos ríos.



*Epidalea calanita*  
**Apo lasterkaria**  
Sapo corredor

**Kaltebera - Vulnerable**

Kantauriar isurialdean bi populazio besterik ez ditu, bat Txingudin eta bestea Azkorri hondartzan, Getxon. Mehatxurik handiena ugaltzeko egokiak diren hezeguneen eskasia da.

En la costa Cantábrica cuenta con tan solo dos poblaciones, una de ellas en Txingudi y la otra en la playa de Azkorri, en Getxo. La mayor amenaza es la escasez de humedales apropiados para su reproducción.



*Lacerta schreiberi*  
**Schreiber muskerra**  
Lagarto verdinegro

**Interes berezikoa - De interés especial**

Endemismo iberikoa, bereziki Bizkaiko kostaldean aurkitzen dena. Landareta ugari harrizko hormetan agertzen da. Baso ertzetan ere topatu dezakegu, artadi kantauriarrean besteak beste. Kostaldeko zelaia ere hartzen ditu.

Endemismo Ibérico, frecuente especialmente en la costa de Bizkaia. Aparece en los muros de piedra con abundante vegetación y bordes de bosques como en el encinar cantábrico. También ocupa campos costeros.



*Hierophis viridiflavus*  
**Suge berde-horia**  
Culebra verdiamarilla

**Interes berezikoa - De interés especial**

Gipuzkoako ipar-ekialdeko muturrean agertzen da. Ez du harrapari natural ezagunik, eta bere habitat naturala galtzea du mehatxu nagusia.

Aparece de manera puntual en el extremo nororiental de Gipuzkoa. Carece de depredadores naturales conocidos, y su principal amenaza es la pérdida de su hábitat natural.





*Acrocephalus schoenobaenus*

**Benarriz arrunta**

Carricerín común

**Galtzeko arriskuan - En peligro de extinción**

Migrazio-igarotzeetan baino ez da ikusten.

Hainbat hezegunetako lezkadien desagertzeak migrazioan atsedean hartzeko lekuak galtzea ekarri du.

Solo se observa durante los pasos migratorios.

La desaparición de diversas zonas húmedas con carrizal ha supuesto la pérdida de lugares de reposo durante la migración.



*Phalacrocorax aristotelis*

**Ubarroi mottoduna**

Cormorán moñudo

**Kaltebera - Vulnerable**

Itsaslabarren zati harrisuetan aurkitzen da.

Azken urteotan, gehiegizko arrantzaren eta ingurunearen gaineko presioaren ondorioz, atzerakadarik handiena izan duen itsas hegaztieta bat da.

Se asienta en los tramos rocosos de los acantilados.

Es una de las aves marinas que ha experimentado mayor regresión en los últimos años debido a la sobrepesca y a la presión sobre su entorno.



*Alcedo atthis*

**Martin arrantzalea**

Martín pescador

**Interes berezikoa - De interés especial**

Erreak, ibaiak, urtegiak, aintzirak eta kostaldeko eremuak gustoko dituen hegazti sedentarioa da.

Uraren kutsadura eta ibaiaren ibilguren alterazioa dira mehatxurik handienak.

Ave sedentaria que habita arroyos, ríos, embalses, lagunas y zonas costeras.

Sus mayores amenazas son la contaminación del agua y la alteración del cauce del río.



*Milvus milvus*

**Miru gorria**

Milano real

**Galtzeko arriskuan - En peligro de extinción**

Badira bikote batzuk eremu atlantikoan finkatuta daudenak.

Habitataren galerarekin batera, mehatxurik handiena beita pozoituak, legez kanpoko ehiza eta linea elektrikoekin talka egitea dira.

Existen parejas que se asientan en la zona atlántica.

Junto a la pérdida del hábitat, la mayor amenaza son los cebos envenenados, la caza ilegal y los choques con tendidos eléctricos.



*Pandion haliaetus*

**Arrano arrantzalea**

Aguila pescadora

**Kaltebera - Vulnerable**

Sarritan ikusten dira udazkeneko migrazioan, batez ere urtegi eta estuarioetatik gertu.

Se ven con frecuencia durante su migración otoñal, sobre todo cerca de los embalses y los estuarios.

Oso hazkunde azkarreko landarea. Lorategietatik ingurune naturalera salto egin du, sustraien bidez hedatzeko duen gaitasunari esker.

Planta de crecimiento muy rápido. Ha saltado de los jardines al medio natural gracias a su capacidad de extenderse a través de las raíces.

## Fauna eta flora inbaditzailea

### Fauna y flora invasora

**Espezie exotiko inbaditzaileak** beraien berezko banaketa-eremutik kanpo garatzen direnak dira, berezkoak ez dituzten habitatetan eta ezohiko ugartasunarekin.

Ondorengo landare- eta animalia-espezieak gure kostaldeko ekosistemetan aurkitu ohi ditugu, eta horiek guztiak mehatxu bat dira bertako espezieentzat eta ekosistementzat.

Las **especies exóticas invasoras** son aquellas que se desarrollan fuera de su área de distribución, en hábitats ajenos y con una abundancia extraordinaria.

Las especies vegetales y animales que se describen a continuación, se encuentran habitualmente en los ecosistemas de nuestra costa y suponen una amenaza para las especies y ecosistemas autóctonos.

#### LANDAREAK / PLANTAS



*Cortaderia selloana*

**Panpako lezka**

Plumero de la Pampa

Hego Amerikatik sartua landare apaingarri gisa. Bere lore lehorra oso erabilia da loradendetan.

Azkar hedatu da Kantauriko kostaldean, bertako hezetasunak eta temperatura leunek hazkundea errazten baitute.

Introducida en Europa desde Sudamérica como planta ornamental. Su flor seca es muy usada en floristería.

Se ha expandido con rapidez por las zonas costeras del Cantábrico, donde la humedad del ambiente y las temperaturas suaves favorecen su crecimiento.



*Buddleja davidii*

**Tximeleten lorea**

Lilo de verano

Jatorriz Txina eta Japoniakoa da, eta mundu osoko lorategietan zabaldu da landare apaingarri gisa.

Ohikoa da lur ezegonkorretan, hala nola obretan, ezpondetan edo trenbideetan.

Originaria de China y Japón, su uso se ha extendido como planta ornamental por los jardines de todo el mundo.

Es habitual en terrenos inestables, como obras, taludes o vías de tren.



*Oenothera biennis*

**Asto belarra**

Onagra

Ipar Amerikan jatorria duen landarea, XVIII. mendetik aurrera Europan sartua. Bere olioa sendagarri moduan erabiltzen da.

Planta nativa de Norteamérica introducida en Europa a partir del siglo XVIII.

Su aceite se utiliza por sus propiedades medicinales.



*Carpobrotus edulis*

**Katu azazkala**

Uña de gato

Jatorri hegoafrikarreko landarea da, eta oso ondo onartzen ditu gazitasuna, eguzkiarekiko esposizioa, lurzoru pobreak eta izozte leunak.

Gainazalak alfombra bat balitz bezala estaltzen ditu.

Planta de origen sudafricano, tolera muy bien la salinidad, la exposición al sol, los suelos pobres y las heladas suaves.

Cubre las superficies como si fuera una alfombra.



*Arundo donax*

**Kainabera**

Caña

Asiako ekialdean du jatorria.

Modu begetatiboan ugaltzen da sustraietatik. Hauek erreserbak metatzen dituzte eta landarea azkar emaberritzea eragiten dute mozten denean.

Originaria del este de Asia.

Se multiplica de forma vegetativa por las raíces. Estas acumulan muchas reservas y hacen que la planta rebrote repetidamente cuando es cortada.



*Baccharis halimifolia*

Jatorriz Mexiko eta Estatu Batuetakoa da, eta Kantauri isurialdean aurki dezakegu. Baldintza ugari onartzen ditu, baina ingurune gazietan da bereziki lehiakorra beste espezie batzuekin.

Originaria de México y Estados Unidos, la podemos encontrar en la cornisa cantábrica.

Tolera diversos ambientes, pero en entornos salinos es especialmente competitiva con otras especies.



*Pittosporum tobira*

Azahar de la China

Txinako ekialdetik dator, eta oso erabilia izan da landare apaingarri eta heskai natural bezala.

Bere hedapena ez da oso bortitza, baina mota guztietako lurzoruetarako duen moldagarritasuna dela eta, bere populazioa lorategi eta parkeetatik haratago hedatzen da arazorik gabe.

Procedente del Este de China, ha sido muy utilizada como planta ornamental y como seto natural.

Su propagación no es muy virulenta, pero la adaptabilidad a suelos de todo tipo hace que su población se extienda sin problema más allá de jardines y parques.





*Stenotaphrum secundatum*

**San Agustín belarra**

Hierba de San Agustín

Atlantikoko kostaldeko zenbait herrialdetan, Afrikako ekialdeko kostaldean eta Amerikan bizi da.

Asko erabiltzen da soropil gisa eta baita artzaintzarako ere. Gazitasunaren aurkako erresistentzia dela eta, beste larre batzuk hazten ez diren lekuetan erabiltzen da. Jarrera inbaditzaile oldarkorra du.

Nativa de varios países de la costa atlántica, la costa este de África y América. Se utiliza mucho como césped y también para pastoreo. Debido a su resistencia a la salinidad, también se usa en sitios donde otros pastos no crecerían. Presenta un comportamiento invasor agresivo.

## ANIMALIAK / ANIMALES



*Neovison vison*

**Bisoi amerikarra**

Visón americano

Jatorriz Ipar Amerikakoa.

Iberiar Penintsulan XX. mendearen bigarren erdialdean ezarri zen, Europako larru-haztegietatik ihes eginda.

Especie originaria de Norteamérica.

En la península ibérica se estableció durante la segunda mitad del siglo XX, procedente de sueltas y fugas de granjas peleteras.



*Vespa velutina*

**Liztor asiarra**

Avispa asiática

Jatorriz Asiako hego-ekialdekoa da.

2004an iritsi zen Frantziara, karga-ontzi batean. Orduetik, oso azkar hedatu da, eta 2010ean Iberiar Penintsulara iritsi zela baieztatu zen.

Originaria del sudeste asiático.

Llegó a Francia en 2004 en un barco de carga. Desde entonces se ha expandido con gran rapidez. En 2010 se confirmó su llegada a la Península Ibérica.



*Myocastor coypus*

**Koipua**

Coipú

Jatorriz Hego Amerikako ugaztuna.

Iberiar Penintsulan ezarri zen, Frantzia eta Kataluniako larru-haztegietatik ihes egin zuenean 70eko hamarkadaren hasieran.

Mamífero originario de Sudamérica.

Se estableció en la Península Ibérica al escapar de granjas peleteras de Francia y Cataluña a principios de los 70.



*Crassostrea gigas*

**Ostratzarra**

Ostra japonesa

Ozeano Bareko Asiako kostaldean bizi da, eta hogeigarren hamarkadatik aurrera zabaldu zen munduan zehar.

Oso espezie sendoa da, ingurunearekiko tolerantzia handia du eta ugaltzeko ahalmen handia.

Es nativa de las costas asiáticas del océano pacífico, y se expandió al resto del mundo a partir de la década de los 20.

Es una especie muy robusta, con una gran tolerancia al medio y un enorme potencial reproductor.

## GUNE BABESTUAK - Natura 2000 Sarea

---

### ESPACIOS PROTEGIDOS - Red Natura 2000

---

<b>Barbadun ibaiaren itsasadarra /</b> Ría de Barbadun .....	4
<b>Astondoko dunak /</b> Dunas de Astondo .....	6
<b>Gaztelugatxeko Doniene /</b> San Juan de Gaztelugatxe .....	8
<b>Urdaibai: itsasertza, itsasadarra eta padurak /</b> Urdaibai: litoral, ría y marismas .....	10
<b>Mundakako itsasadarra eta Ogoño lurmuturreko itsas gunea /</b> Espacio marino de la ría de Mundaka-Cabo de Ogoño .....	12
<b>Urola ibaiaren itsasadarra /</b> Ría del Urola .....	14
<b>Iñurritza /</b> Iñurritza .....	16
<b>Oria itsasadarra /</b> Ría del Oria .....	18
<b>Ulía-Jaizkibel /</b> Ulía-Jaizkibel .....	20
<b>Txingudi-Bidasoa /</b> Txingudi-Bidasoa .....	22

## KOSTALDEKO EKOSISTEMAK

---

### ECOSISTEMAS COSTEROS

---

<b>Duna-sistemak /</b> Sistemas dunares .....	24
<b>Padurak eta estuarioak /</b> Marismas y estuarios .....	26
<b>Kostako txilardiak /</b> Brezales costeros .....	28
<b>Artadi kantauriarra /</b> Encinar cantábrico .....	30
<b>Marearteko arrokkak /</b> Rocas de la zona intermareal .....	32
<b>BABESTUTAKO ESPEZIEAK /</b> ESPECIES PROTEGIDAS .....	34
<b>FAUNA ETA FLORA INBADITZAILEA /</b> FAUNA Y FLORA INVASORA .....	37

aztertu *naturakosta*